

# EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

82 zenbakia  
euro 1  
laguntzarekin: 2 euro

**Ezker  
Iraultzailearen  
aldizkaria**

www.ezkeriraultzailea.net



## Ez dugu euren krisia ordainduko

**Alternatiba iraultzaile baten alde**



# Ez dugu euren krisia ordainduko

## Alternatiba iraultzaile baten alde

### EDITORIALA

EAJk eta PSEk indarrak batu dituzte Eusko Jaurlaritzan langile klasearen aurkako erasoaldi handiena prestatzeko. Patronala labana zorrotzen ari da, kontziente izanik ekonomia kapitalistaren krisia benetan sakona dela eta eszenatoki honetan onartuko duen errezeta bakarra oinarritzko eskubideen eraso gupidagabea izango da: soldatak jaistea, esplotazioa eta prekarietatea handitzea, zerbitzu publikoak pribatizatu eta murriztea, langabezia eta pobrezia ikaragarri handitzen diren bitartean.

Eginkizun honi erantzunez behartu zituen Urkulluk, kosta ahala kosta, hauteskundeak uztailean, pandemiaren erdian. Ekaitza iragartzen zuten laino beltzak ikusita, EAJk Eusko Jaurlaritzaren agintea ziurtatu nahi zuen berandu baino lehen. Euren politiken aurkako haserre eta kaleko mobilizazioa handitzen ari ziren heinean, arrisku handia zegoen euskal burgesiak botere instituzionala galtzeko hain garrantzitsua den testuinguran.

PSEk zalantzarik egin gabe eman dio gehiengo absolutua EAJri Eusko Jaurlaritzan. Baina parlamentuan gehiengo edukitzeak ez ditu arazoak ezabatuko, eta are gutxiago Gobernu hau jaio den hauteskundeetan abstentzioa %47,14koa izan eta Jaurlaritzako bi alderdiek eta eskuin espainolista boto andana galdu zuten. Orain, patronalak eta Gobernu honek aurre egin beharko dio borroka esperientzia itzela duen langile klaseari, 2008ko krisitik herostura politiken aurka, urtarileko greba orokorrarekin eta Euskal Herriko kaleak bete dituzten mobilizazio ikaragarriekin.

### Sistema kapitalistaren hondamendia

Euskal Herriko industrian lanpostuen suntsiketarik lehen kolpe oso gogorra eman du hilabete hauetan, Siemens Gamesa, ITP, Tubacex, Aernova... kasuekin. EAJko Arantxa Tapiak uztailean adierazi zuen "mota honetako berri txarrak bat eta bi baina gehiago edukiko ditugula" eta errealistak izateko eskatzen zuen, kaleratzeak eragozteko soldatak jaistera animatuz. Burla izugarria, gezurra izateaz gain, lantokietan Aldi Baterako Enplegu Espedienteen izurritea zabaldu baitute eta milioika euro oparitu enpresariei, euren zergak ezabatuz.

Argi dago krisi ekonomikoa eta lanpostu suntsiketa ez dela geratuko, nahiz eta ahalik eta eskulan merkeena eskeintzeko "merkatu lehiakortasunean" tematu. Ekonomia kapitalista gain-ekoizpen krisi batean dago. Enpresariak ezin badituzte irabaziak handitu merkatuan produktuak salduz, enpresak itxiko dituzte; eta ez dituzte merkantziak salduko ikaragarri po-



bretu dutenean langile klasea —baita herrialde aurreratuen ere— eta are gehiago zapaltzeko asmoa dutenean.

2008ko krisian aplikatu ziren erreskateek, kapitalistei irtenbide bat eman zien irabaziak loditzen jarraitzeko, gehiegizko ekoizpen gaitasunaren aurrean: espekulazio finantzarioan inbertitzea zor publikoan oinarrituz, inolako oinarri produktiborik ez duen fikziozko kapital erraldoia puztuz mundu mailan. Pandemia, berandu baino lehen eztanda egin behar zuen burbuila lehenerrazi duen istripua izan da. Hala ere, kapitalistak eta instituzioak hartzen ari diren neurriak desaste honetara eraman gaituzten berberak dira.

Estatu espainiarreko aurreikuspenek jada baztertzuten Nardia Calviñok aipatzen zuen "V" formako berreskuratzeko azkarra. OCDEk bigarren hiruhilekoan BPGa %18,2 erori zela baieztatu zuen, eta etorkizuna gero eta ilunago murrizten da. Hala ere, kolapso ekonomikoa honen erdian, martxoaren 18tik ekainaren 4era Estatu espainiarreko 23 aberatseneko euren dirutzak 19.200 milioi eurotan handitu dituzte. Bistan da ez gaudela kapitalisten ontzi berean.

### Itun soziala eta PSOE-UP Gobernu

"España puede" leloarekin, Pedro Sanchezek ekitaldi handi batekin hasi zuen kurso politikoa, burgesia espainiarreko handi-mandiak atzean zituela: Ana Patricia Botín (Santander), José María Álvarez Palleto (Telefónica), Carlos Torres (BBVA), Florentino Pérez (ACS), José Ignacio Sánchez Galán (Iberdrola) eta

Pablo Isla (Inditex). Presidenteak berriro "batasun nazionala" defendatu zuen kritikatzen irteerako, oligarkia guztien txalo eta alabantza artean. Sanchezek CCOO eta UGT bertan egotea azpimarratu zuen, baita Unidas Podemosko ministroen parte hartzea ere, Pablo Iglesias bigarren lehendakari ordea buru zutela.

Sanchez Ciudadanosengana hurbildu izanak eta Alderdi Popularrari bidali dion mezuak —Estatuko enpresari nagusien babesarekin—, ez dute zalantzarik uzten. Eskatzen duen "elkarrizketak" eta "batasunak" oso asmo konkretua dute: Merkel, IBEXa, CEOE eta eskuina asebeteko dituen aurrekontuak onartzea.

Bien bitartean, EAJk eta euskal burgesiari sobera erakutsi dute zein garrantzitsua den eurentzat 78ko erregimenaren eta Madrildiko Gobernuaren egonkortasuna defendatzea, izan Rajoy edo Sanchez babestuz. Horren adibide garbiena Catalunyako herraren altxamenduaren aurka agertu zuten jarrera izan zen, ahal zuen guztia egin zuenean gazteriaren eta langile klasearen borroka itzaltzeko, errepresioaren alboan kokatuz. Orain, oso gustura ageri dira PSOE eta UPren Gobernuaren politikekin, elkarrizketa eta bake sozialaren diskurtsoekin. Ez dute inolako arazorik Ciudadanos ere aurrekontuetan sartzeko, beti ere euren interesak bermatzen badira.

PSOE abileziaz ari da burgesiaren interesak defendatzen, eta arazo handirik gabe erakartzen du lan horretara Unidas Podemos. Langile klasearentzako momentu latzenetan Pablo Iglesiasen alderdiko buruzagiak Estatuko agenteen ardurarekin jokatzeko erabaki dute. Hainbeste propaganda egin dioten "ezkutu sozialak" argi utzi du ez dela gai langile klasearen premia beharrei erantzuteko, adibidez, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ez denean eskatzaileen %1era ere iristen.

Unidas Podemosen atzera egiteak oso ondo erakusten dute nora iristen den kretinismo parlamentarioa, programa kontsekuente bat defendatzeko masa borrokan oinarritzeari uko egiten denean. Ez badute akatsa zuzentzen, estrategia honek ikaraga-

ri azkar sakonduko du euren oinarri sozialarekiko banaketa, Galizako eta EAeko hauteskunde desastretara eramanez.

### Badago alternatiba. Kalean borrokatzea gizartea eraldatzeko programa iraultzaile batekin

Klase agintariak ondo daki potentzial ikaragarri leherkorra metatzen ari dela klase borrokan. Ondo baino hobeto dakite bake soziala mantentzea oso konplikatu izango dela, baldin eta ezkerrek eta sindikatuek ez badute kolaboratzen. Baina ikasurte hasieran egin diren mobilizazioek, pentsionistak eta hezkuntzako grebak bezala, argi erakusten dute langile klaseak ez duela krisiaren faktura ordainduko borrokatu gabe.

Gauzak benetan konplikatu jartzen direnean, burgesiaren azken esperantza izaten da ezkerreko zuzendaritzek kapitalismoaren logika onartzea, hau da, banku eta enpresa handien jabetza pribatua, eta kapitalaren diktadura babesten duten Estatua eta legeak onartzea. Premisa horretatik abiatuz, geratzen den bakarra —erreformismoaren eskola garrantzak erakusten duen moduan—, negoziatzea izaten da eskaintzeko miseria eta pobrezia gehiago besterik ezer ez duten horiekin.

EH Bilduk eta gehiengo sindikalak borroka bideari eutsi behar diote, urtarilaren 30eko greba orokorraren bidea sakonduz eta irmoki borrokatuz murrizketa politiken eta patronalaren xantaia-aren aurka. Beharrezkoa da borroka zabaldu eta elkartzeko gure eskubide guztiak eta lanpostu guztiak defendatzeko, langile klasearen kontzientzia eta geure indarretan dugun konfiantza handitzeko, gizartea eraldatzeko zereginean. Orain inoiz baino gehiago, beharrezkoa da alternatiba iraultzaile bat kontsekuente defendatzea.

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!  
Lagun iezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

ezkeriraultzailea@gmail.com • Tel.: 685 708 281

Twitter: @Ezklraultzailea • Facebook: Euskal Herria Sozialista

**LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!**

Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!

Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.

**Batu zaituz  
Ezker Iraultzailera!**

JOSE LUIS CARIÑANOS  
Ezkerreko Sindikalistak  
Burulan enpresa komiteko  
partaidea - Aernnova Taldea

Euskadin, industria aeronautikoa oso garrantzitsua da, industriako BPGaren %6,1 hartzen du eta industriako langileen %2,4 enplegatzen du.

Covid-19 krisiarekin aireko trafikoa %90eraino murriztu da azken hilabeteetan. Horrek hegazkinen eskaeren beherakada nabarmena eragin du, eta fabrikatzaile nagusiak hasierako aurreikuspenetan doikuntzak egitera eraman ditu, produkzioa %35 eta %40 artean murriztuz.

Multinazional aeronautiko handien ekoizpenaren murrizketa horrek zuzenean eragiten die hornitzaile guztiei. ITP Aerok, adibidez, hegazkin turbinen fabrikatzaileak, uztailean 600 langile kaleratuko zituela iragarri zuen, plantillaren %15. Aciturrik, jarduera %40 baino gehiago murriztu du eta EEE bana iragarri du Valladolideko eta Burgosko lantegietan. Eskuratu berri duen Alestis enpresak ere jakinarazi du ez dela Aldi Baterako Enplegu Erregulazioa luzatuko, bertako langileen erdia kaleratzeko EEE bat negoziatzeko bidea irekiz. Bere aldetik, Aernnova taldeak lan kargaren %40 galdu du eta datozen hiru urteetan %30 murriztea espero du. Hori dela eta, 950 lanpostu murriztuko dituela iragarri du, hauetatik 650 espainiar Estatuan.

Hornitzaile handi horiez gain, krisiak sektoreko enpresa laguntzaile ugariri ere eragiten die eta horien ekoizpena nabarmen murriztu da. Horrek enplegu suntsiketari gehiago ekarriko du.

#### Non daude lortutako irabaziak eta laguntza publikoak?

Enpresa horien zuzendaritzen arabera, plantillako "egokitzapen" guztiak sektoreko enpresak eta enplegua salbatzera bideratuta daude. Aurreko urteetan lortutako etekin handiek ez dute ezertarako balio izan. Gobernu ezberdinek emandako laguntza handiek ez dute enplegua mantentzeko balio izan, enpresarien kontu korronteak gizentzeko baizik.

Uztailaren 31n, PSOE-UPren Gobernuak —Aeronautika Plan Teknologikoaren bidez— 185 milioi euroko laguntza eman zion Airbus enpresari, eta beste 100 milioi bideratu zituen enpresen flota berritzeko.

Aire konpainiei emandako laguntzetan oso esanguratsua da Air Europaren kasua. 400 milioi euroko zuloa duen konpainia

## Gamesa, Aernnova, Alestis... Sektore aeronautikoaren aurkako eraso:

# Borrokak bateratu eta lanpostuak defendatu!



diru publikoarekin erreskatatu ondoren, Iberiaren IAG taldeak eros dezake. Operazio honekin, erreskatean erabilitako diru publikoa Air Europaren jabea den Hidalgo familiaren kontura bideratuko litzateke.

Enpresa horietan guztietan ezarritako Aldi Baterako EEEk ez dituzte kalera-tzeak eragotzi, langileen ordezkariekin negoziatzerakoan argudiatu zuten moduan. Lortu den gauza bakarra kaltetutako langileen soldatak aurreztea izan da, diru publikoaren kaltetan eta eskulana are gehiago prekarizatzea.

Kritik ateratzeko kapitalisten errete-za ezagutzen dugu jada. Datozen urteetan benetako hondamendi soziala ekidin nahi badugu, borroka irmoa antolatuta behar dugu eraso horien guztien aurka.

#### Ezinbestekoa da mobilizazio handia antolatzea sektore aeronautiko osoan

Kapitalistek inposatzen diguten logika onartzeak langile klasearentzat etengabeko kontzesioak eta sakrifizioak egitea suposatzen du, enpresa irabazi guztiak bere horretan mantendu ditzaten. Horregatik, sindikalismo "errealista" praktikatzeari eta gaitz txikiena onartzearen utzi behar diogu. Nissanen itxieratik ikasgai garrantzitsuak atera daitezke. Aurre erre-tiroak eta indemnizazioak adostearen ondorioz 25.000 langile kalean geratu dira kontratatuak, azpikontratuak eta hornitzaileak barne.

Euskal gehiengo sindikalak kapitalaren aurkako borrokaren bidea berreskuratu behar du, borrokan zeuden sektoreak bateratu zituen urtarrilaren 30eko greba orokorraren bideari eutsiz. Gaur egun bizi dugun egoera orduan baino askoz okerragoa da. Horregatik, erantzunak ahalik eta zabalena eta indartsuena izan behar du. Lantoki guztietan asanbladak antolatzen hasi behar dugu sektore aeronautiko osoa batuz borroka hau maila altuago batera hedatzeko —baita Euskal Herri-rik kanpora dauden lantegiak ere— eta langileen artean mobilizazio plana demokratikoki erabaki behar dugu, krisiak jotako beste sektore batzuk borrokara elkartuz, langile klase osoaren laguntza bilatuz.

Ekonomia kapitalista ez bada gai sektorean enplegua bermatzeko eta prekaritatearekin amaitzeko, langile klaseak hartu behar du ekoizpen-bitartekoen kontrola, hau da, enpresa nazionalizatu behar da, langileek demokratikoki kudeatuta izateko. Irtenbide hori exijitu behar dio-

gu PSOE-UP gobernuari eta salatu EAJ, euskal ehun industrialari suntsitzen ari den patronalaren alderdia dela. Sektore aeronautikoaren industria —gainontzeko sektoreak bezala— sozialki beharrezkoa da, besteak beste, garraibide publikoak, autobus elektrikoak eta produktu ugari fabrikatzeko eta milioika pertsonen bizitzak hobetzeko. Baina kapitalisten irabazi pribatuak lehenesten diren bitartean hori guztiz ezinezkoa da.

Hori dela eta, langile guztien eta gizarteko sektore zapalduen borroka irmo eta antolatua ezinbestekoa da enpleguaren defentsan eta lan baldintzak hobetzeko, hau da, azpikontratazioarekin, prekaritatearekin, aparteko orduekin eta soldata baxuekin amaitzeko. Urtarrilaren 30eko greba orokorrean egin genuen moduan, berehalako aldarrikapen argiak ditugu: 1.200 euroko gutxieneko soldata, astean 35 orduko lanaldia, PSOE eta PPren lan erreformak indargabetzea, pentsioak, osasuna eta hezkuntza publikoa zein lan baldintza duinak defendatzea.

Horregatik borroka maila altuagoa eraman behar dugu. Etorkizun duina nahi badugu, kapitalismoa sistema posible bakarra dela onartzera makurtzen den sindikalismo otzanarekin hautsi behar dugu. Bai, bada alternatiba bat! Langile klasearen alternatiba baten alde borrokatu behar dugu: desberdintasunik edo pobreziarik gabeko gizartearen alde, ekoizpen baliabide handiak modu planifikatuan, langileen kontrolpean eta ingurumena errespetatuz antolatuko dituen gizarte baten alde, behar sozial guztiak asetzeko eta ez aberastasuna monopolizatzen duen gutxiengo sozial baten interesen mesederako. Gizartearen eraldaketa sozialistaren alde borrokatu behar dugu.



WEB orri berria:  
[www.ezkeriraultzailea.net](http://www.ezkeriraultzailea.net)



# Elkarrizketa Laura Luengori

Ikasle Sindikatuko bozeramailea

**“Kalitatezko hezkuntza publiko presentzial eta segurua izateko dugun eskubidea bermatzeko, irtenbide bakarra dago: hezkuntza publikoa erreskatatzeko plan bat abiatzea”**



Joan den ikasturte amaiera, EAEn, irakasleen protestekin eta ikasle greba orokorrarekin amaitu zen Urkulluk ezarritako eskoletara itzultzearen aurka. Orain hasten dena hezkuntza-komunitatean gero eta handiagoa den haserreak markatzen jarraitzen du, bitarteko faltaren aurrean. Ikasle Sindikatuak greba deitu du berriro, baina oraingoan Euskal Herritik haratago doa. Irailaren 16, 17an eta 18an Estatu osoko ikasleei ikasgelak husteratu zituzten diete eta 15ean greba hasiko dute EAEn, irakasleen sindikatuarekin batera. Laura Luengo Ikasle Sindikatuko bozeramailea elkarrizketatu dugu.

**EHS.- Zein da borrokara bultzatu zaituzten egoera eta zein dira zuen aldarrikapenak?**

**Laura Luengo.-** EAJk urteetan hezkuntza publikoa murrizten eta erasotzen eta itunpeko pribatuaren mesedetan egin dituen politikak ondorio katastrofikoak izan dituzte. Pandemian zehar, langile familietako milaka ikasle erabat abandonatu dituzte. Orain, hila-bete hauen ondoren, gela masifikatueta eta baliabiderik gabe klasera itzultzea nahi dute.

Nahi duguna oso argi dago: kalitatezko hezkuntza publiko presentziala izateko dugun eskubidea bermatzea, segurtasun baldintzetan. Hori bermatu ahal izateko, irtenbide bakarra dago: ratioak ikasgela bakoitzeko 15 ikaslera murriztea, 10.000 irakasle inguru

kontratatzeko eta beharrezko espazioak prestatzea, garbiketa eta osasun langileak kontratatzea, etab.

Hala ere, argi dago EAJrentzat lehen-tasuna enpresa irabaziak direla, eta eskola publikoa gurasoak lanera joan daitezkeen seme-alabak uzteko toki bakoitzeko ez dela.

**EHS.-** PSOE eta UPren koalizio Gobernua ere salatzen duzue. Zertan datza kritika?

**LL.-** Gobernu honen jarrera ez ikusiarena egitea izan da eta ez du ezer egin. Eskuina agintean den tokietan murrizketak egiten ari da eta Hezkuntza Ministerioa isilik geratu da, hezkuntza publikoa erreskatatu beharrean. Koalizio Gobernuak asko hitz egiten du ezkutu sozialaz baina PPK hezkuntza publikoan egin zituen murrizketak bere horretan jarraitzen dute, eta bitartean 100.000 milioi oparitu dizkie enpresa handiei eta Ibex-35ari.

Berehala zuzendu behar dituzte neurriak! Horregatik greba Estatu mailara zabaltzen da eta oso positiboa da Estatuko beste lurraldeetan egun horietan irakasle sindikatu batzuk grebara deitu izana —esate baterako CIGak Galizian 16an edota CGTk Andaluzian 18an—. Zenbat eta indar gehiago batu are indartsuago izango gara, bai Madrilgo Gobernua presionatzeko eta baita Urkullu geldiarazteko ere.

**EHS.-** Garrantzia handia ematen diozue hezkuntza komunitate guztiaren batasunari...

**LL.-** Noski. Hori da gakoa eta EAEn hilaren 15ean irakasle sindikatu guztiak greba egingo dutela jakin bezain laster, ez dugu zalantzarik izan deialdia ikasleei zabaltzeko. Hori da EAJ-PSEren Gobernua benetan isolaturik dagoela eta ahula dela erakusten duen froga hoberena. Elkarrekin borrokatzea da gure aldarrikapenak lortzeko bide bakarra. Eta posible da garaipena lortzea tinko borrokatzen jarraitzen badugu.

